

# FUNTSEZKO SOZIETATEAK-ELKARTEAK

Gure enpresa ondo eta era jasangarrian funtzionatzeko ezinbestekotzat hartzen dugu beste enpresa batzuekin **akordio** batzuetara ailegatzea, bai produktuak bereganatzeko hornitzaileekin, bai bezeroekin arriskuak murrizteko. Horretarako, Euskal Herriko zein estatuko enpresa batzuekin harremanetan jarriko gara, gure potentziala handitzeko eta bezero gehiago erakartzeko.

**Hornitzailea** enpresaren oinarria da, eta horren bidez merkataritza-eragiketetarako beharrezkoak diren lehengaiak lortzen dira. Era berean, etengabeko elkarreragin horri esker, sare, aukera eta sinergia berriak sor daitezke merkataritza-interesen alde eta enpresa-onurarako. Horregatik ezinbestekotzat hartzen dugu, km-0 ko elikagaiak ziurtatuko diguten hornitzaileekin lan egitea.

**Eusko Label etiketa** duten produktuetaz hornitzea komenigarriena dela uste dugu, berme eta kalitate handiko elikagaiak behar baitugu. Produktu horiek Euskal Herrian produzitu edo elaboratu dira, hortaz, gure eskualdeko enpresak indartuko ditugu, gure hornitzaile bezala finkatuz .

Hortaz aparte, Zamudioko parke teknologikoaren zenbait enpresekin harremanetan jarri gara hasieratik bezero bihurtzeko asmoz. Proiektuaren hasieratik bi enpresa garrantzitsurekin gure zerbitzuen kontratu bat lortu dugu, Hauek, “**Siemens Gamesa renewable energy**” eta “**Gamesa energy transmission**” enpresak dira hain zuzen ere. Enpresa hauen langileek gure jatetxean janaria eskatzean datza gu horrela bezeroak irabazteko. Guk haiek konpentsatzeko izugarritzko deskontua egingo genuke haien eskaeretan, horrela aldebiko aliantza bat sortuz



Bestetik, Gure banatzaileek erosotasuna eta azkartasuna irabazteko “**Xiaomi**” enpresarekin aliantza bat egin dugu haiek guri patinete elektrikoak suministratzeko. Akordio honetan



patinete elektrikoak erosiko ditugu eta gainera patineteren bat aberia bat badu edo apurtzen bada beste bat emango digute problemarik gabe. Patinete elektrikoak aukeratu ditugu banaketa egiteko metodo gisa; izan ere, metodo azkarra eta eraginkorra izateaz gain, oso metodo ona direlako ingurumena ez kutsatzeko.



Azkenik, gure eskaintza ahalik eta jende gehienek eskura ailegatzeko, “Espectalium Agency” agentziarekin harremanetan jarriko gara Gotzon Mantuliz gure enpresarekin kolaboratzeko.

**Gotzon Mantuliz** bizkaitarrak, “Zapeando” eta “El conquistador del fin del mundo” saioengatik ezaguna da eta bizitza osasungarriari, kirolari edo bere bizitzari buruzko gomendioz beteta dauzka sareak.